

## 1. gaia: Jostailu-katalogoetan, sexismoa nagusi

### Egoera:

Zure etxeko postontzian jostailu-marka ezagun baten katalogoa jaso duzu. Neskentzako eta mutilentzako jostailuak daude bertan, eta oso rol matxisten erakusgarri dira.

### Eginkizuna:

Idatzi gutuna jostailu-etxearen arduradunari. Bertan, adierazi zure desadostasuna katalogoan egiten den generoen arteko bereizketarekin; azaldu zer-nolako garrantzia duten jolasak eta jostailuek haurren heziketan eta gizarteratzean; eman argudioak jostailuen iragarkietan sexismoa desagerraraz dezaten; eta, azkenik, egin proposamenak sexistak ez diren jostailu-katalogoak egiteko.

### Lagungarriak:

- Jolas eta jostailuen bidez umeei gizarte-arauak, jarrerak eta balioak bereganatzen dituzte.
- Rol jakin batzuk genero bati esleitzen dizkion jostailua da sexista, eta gaitasun eta izaera jakin batzuk garatzeko helburuz.
- Jostailuen bidez, genero-rolak betikotu.
- Jostailu gehienak, berez, ez dira sexistak; erabilerak dira sexistak.

